

# Haur elebidunen gurasoentzako dekalogoa

## Decálogo para padres y madres de niños y niñas bilingües

*Ezagutu ezazu [www.emangiltza.com](http://www.emangiltza.com) web gunea. Gai hauen inguruko aholkuak eta tresnak aurkituko dituzu.*

*Visita la página [www.emangiltza.com](http://www.emangiltza.com). Encontraras información, consejos y herramientas sobre estos temas.*

LAURO IKASTOLA  
IKASLEEN GURASOENTZAKO ESKU-ORRIA

## Zergatik dekalogoa?

Gure ikasleak benetako elebidunak izatera iristea nahi dugu, eta, horretaz gain, euskara ere bizitzeko aukera izatea. Horretarako beharrezkoa da ikastolatik kanpo euskararekin harreman handia izatea: euskara asko erabiltzea eta euskararekin lotuko dituzten bizipenak izatea.

Horri begira, noski, gurasoon laguntza beharrezkoa da. Dekalogoan hainbat ideia zerrendatu ditugu, gure ustez lagungarriak eta eraginkorrak izan daitezkeenak.

## ¿Qué es este decálogo?

Queremos que nuestros alumnos realmente lleguen a ser bilingües (que tengan facilidad con el euskera y con el castellano) y que en muchas relaciones utilicen euskera con naturalidad. Para ello es necesario que tengan mucha relación con el euskera fuera de la ikastola: que utilicen euskera y que tengan referentes y vivencias positivas en esa lengua.

Para ello es imprescindible la ayuda de padres y madres. En este decálogo os ofrecemos algunos consejos que nos parece pueden ser útiles.

## Haur elebidunen guraso euskaldunen dekalogoia

- 1- Nire seme-alabak elebidun izatearen eta euskara aritzeko ohitura izatearen ardura ez diot ikastolari utziko. Gurasook ere lagunduko dugu norabide horretan.
- 2- Irakasleekin bilerak egiten ditugunean, hizkuntzen ikaste prozesuaren inguruan eta euskararen erabileraren inguruan interesa erakutsiko dugu. Irakasleek egiten dizkiguten ohar eta gomendioak kontuak hartuko ditugu, guri laguntzeko prest daude.
- 3- Euskara aberatsa izan dezaten, etxetik euskara eskainiko diegu eta euskararekin jolastuko dugu (abestiak, ipuinak...). Euskara aberatsa eskaintzea izango da abiapuntua beste hizkuntzak ere ikasteko erraztasuna izan dezaten.
- 4- Aukera ikusten dugun guztietan eskola orduz kanpoko jarduerak euskaraz aukeratuko ditugu. Etxetik kanpo euskara erabiltzeko guneak eskaintzeko bide eraginkorrena da. Kirolean, antzerkian edo beste edozein jardueretan euskaraz aritzeko aukera emango diegu.
- 5- Lagunartean euskara erabili dezaten, gure hizkuntza-ohiturak zainduko ditugu. Seme-alabek ikusten dutena egiten dute. Lagun euskaldunekin euskaraz egiten badugu, eredu ona eskaintzen ari gara.
- 6- Euskarazko erreferenteak eskainiko dizkiegu: musika, jostailuak, jolasak, telebista... Arlo horietan guztietan euskarak bere lekua izan dezan zainduko dugu. Euskarazko erreferenteak ere behar dituzte.
- 7- Opariak egiten dizkiegunean (Gabonetan, adibidez), euskarazko opariak ere egingo dizkiegu. Erreferenteak eskaintzeko eta euskararekin harremana zaintzeko bidea da.
- 8- Euskarazko bizipenak eskainiko dizkiegu. Etxetik zein etxetik kanpo euskararekin lotuko dituzte esperientziak behar dituzte: eskola orduz kanpoko jarduerak, antzerkiak, txotxongiloak, zinea, jaialdiak...
- 9- Opor garaietan (Gabonak, uda...), ahalegina egingo dugu euskaraz aritzeko aukera izan dezaten etxetik kanpo. Inguruan horretarako zein aukera ditugun aztertuko dugu. Antolatutako jarduerak izan daitezke (Udaleku irekiak, kanpaldiak, ikuskizunak...) ed eskura ditugun beste batzuk (harreman sare euskaldunak, familia...).
- 10- Beste hizkuntzekiko interesa erakutsiko dut. Gaztelania eta ingelesa ondo ikastea nahi dugula ikusi behar dute, eta, horretaz gain, beste hizkuntzekiko interesa dugula ikusi behar dute. Eleaniztasunarekiko mezu positiboak emango dizkiegu.

## **Decálogo para padres y madres que no saben euskera (o saben un poco)**

- 1- Colaboraremos con la ikastola para que nuestros/as hijos e hijas lleguen a tener facilidad para utilizar euskera y para que en muchas relaciones utilicen euskera con naturalidad.
- 2- En la reuniones con profesores/as mostraremos interés por el proceso de aprendizaje de los idiomas y por el uso del euskera. Tendremos en cuenta los consejos y las recomendaciones que nos hagan los/las profesores/as sobre estos temas, los/las profesores/as están dispuestos/as a ayudar.
- 3- Ofreceremos a nuestros hijos/as euskera desde casa. Si sabemos un poco intentaremos utilizar el euskera que sabemos, y si no sabemos nada, aprenderemos algunas expresiones o frases que podamos utilizar en la vida cotidiana. Les estaremos ofreciendo actitudes muy positivas hacia el idioma.
- 4- Siempre que podamos, optaremos por actividades extraescolares en euskera. Es el modo más eficaz para ofrecerles euskera fuera de la ikastola. Facilitaremos que puedan utilizar euskera en actividades deportivas, teatro, etc.
- 5- Les ofreceremos referentes culturales en euskera: música, juegos, juguetes, televisión... Haremos un lugar al euskera en todo tipo de actividades. Necesitan referentes euskaldunes.
- 6- Cuando les hagamos regalos (por ejemplo, en Navidades), entre los regalos habrá algunos en euskera. Les ofreceremos referentes euskaldunes y les ayudaremos a tener una buena relación con el euskera.
- 7- Les ofreceremos vivencias positivas en euskera. Necesiten experiencias positivas que relaciones con el euskera tanto en casa como fuera de casa: actividades extraescolares, teatros, marionetas, festivales, cine...
- 8- En épocas vacacionales (Navidades, verano...), les ofreceremos actividades para que puedan utilizar euskera: colonias urbanas, campamentos, espectáculos...
- 9- Por supuesto, les transmitiremos que queremos que aprendan bien castellano. No hará falta ofrecerles referentes y actividades en ese idioma: es el idioma mayoritario en nuestro entorno.
- 10- Mostraremos interés por el proceso de aprendizaje del inglés, les transmitiremos nuestro interés en que aprendan bien ese idioma. Pero también mostraremos interés y curiosidad por otros idiomas (que conviven e nuestro entorno, que conoceremos cuando vayamos de viaje...). Les ofreceremos actitudes positivas hacia el multilingüismo.